

# HITZAURREA

Oren guziek dute gizona kolpatzen  
Azkenekoak du hobira igortzen.  
(*Sarako eliz-dorrean izkribatua*)

Beti denik bizitu da gizona heriotzaz kezkatu-  
rik. Ulerkaitz zaio zentzuzko zerbait izatetik ezer-ezera  
suntsitu beharra, ulerkaitz biziaren beraren arrazoia.  
Aldian aldiz aurkitu du nolabaiteko arrazoia zirudie-  
na. Hala ere, zalantza du, hil beharra muga ala muta-  
zioz betirako pizkundea ez ote den; baina mendeetan  
zehar, behin eta berriz, etsipendu ezinez, galdezka  
iharraituko du gizonak, erantzunaren bila; naiz eta  
jakin erantzun ziurrik nekez aurkitu lezakeala.

Herbesteetara jo gabe, hemen bertan aurkitzen  
ditugu kezka horien aztarnak Historia aurretik hasi  
eta etenik gabeko katean belaunik belaun. Harpeetan  
hobiratzearen lekukotasunak, geroago treguharriak  
hilen pausa-leku, etxe inguruko baratzeak, kristauta-  
suna iritsi baino lehenagoko sakralizatzeko dira. Erdi  
Arotik gorpuaren inguruko elizlizunak eta abar, gure  
artetik fisikoki doazenak arimaren bidez irauna-

razitze gogoia gizonaren baitan. Gure Unamunok bere pentsaera eta sentieraren larriminezko borokan zituen bizia eta herioa.

Jaiotza hain emankorra delarik ere, bizitza berez doa heriotzara. Hori izaki bere korront naturalaren muga jakina.

Noraezinarekin aurkitzean idekitzen zaigu zailantzezko leiza misteriotsua eta horren inguruan dabilta era askotariko sineskerak, desagertuko denari arimaz iharraipena eman nahirik; hori litzake aurrez-aurre bizitzaren garaikuntza. Herioak ez omen du zuhurra hatzematzen; baina, era batera edo bestera, azkenerako irabazle da. Okerrena ez dakit, baina arima salbatzearen bizitza galera gerta litzaziguke bihurriena. Nork daki? Anartean, egizat, bakoitza bere zoroak darabil.

Borroka hortan ez dago irtenbiderik. Herioa nagusitzen da, Prado Museoa erakusten den Brueghel—en laukiak mingotski sinbolizatzen duen bezala.

Esan beharrik ez dut, iker gaiak hautatzeko orduan, nere zaletasunak jaiotzetara maizago erotzen nauela, bukaerak baino nahiago ditudanez; maiteago sorrerak eta ez amaierak. Horren lekuko dut Piarres



Lafitteren omenezko liburuan eskaini nuen lana, "Arraten sortzen da bizitza" (ikus, Iker - 2 liburuen 849. orr.), zeren horrek erakusten bai du beste muturretik ere etnia lanak posible direla. Baina, gaurko liburu hau beste alderdia erakustera dator, bere etnologia saioa beste muturrekoa delarik; argia etetzen denekoa, herioak dakarren belzduak inguraturiko ohitura zaharren aztertzaile, eta gogozkoa izan edo ez izan, aurpegi hori ere hor dago.

Gaia, zalantzarik gabe, interesgarria zaigu; beti denik gizona izan edo ez izanaren aurrez aurre jarri denez. Aldi bakoitzeko gora beherak zehar, behin eta berriz ari da gizona bere izateari erantzuna eman nahian. Beste era batera jasan ezina agian; baina, era berean, gogoaren ernagarri.

Euskaldungoan, W.A. Douglass-ek Heriotza Murelagan zeritzana, lehenik 1969an Washingtongo Unibertsitatean argitaratua, gero, 1973an espainolez agertuak arrakasta handia izan zuen, gai garrantzitsu bati soilki loturik sakondutako lana zenez. Handik laster xamar ekin zion Alberto Agirreazaldegik honakoari. Bibliografia osatuago bat ezik, Elgetan bere sorterriko galdegaia burutuko zuena 1976an Erroman, Santo Tomas Aquino Unibertsitatean, R. Sigmund jaunaren zuzendaritzapean filosofia tesitatzat.

Albertok, ordurako, beste bide batzuk ibiliak zituen, zeren Elektronika ikasketak Eibarren egin zituen garaian euskal kulturari buruzko ekintzak antolatzen zituzten gazte haietan burutza zeraman Armeria Eskola haretan. Ni neu ere maiz sartu ninduten ekintza haietan laguntzaile. Alberto, han azkartu zitzaion euskalgintzarako zaletasunak eroan zuen teknikak burutu ondotik letren eremura igaro eta honako ikerketa hau egitera. Xehetasun ugari gainera ohitura eta ikuspegi berriak eskaintzen dizkigu lan honetan eta alde hortatik du bere balioa.

Arestian esan bezala, Euskal Herrian, Harri-Aroaren azkenalditik nabari dira hobiratzeak. Horren lekukotzat aski dut Basondoko Santimamiñe eta Sagastigorria harpeak Kortezubin edo Itziariko Urtiagakoa oroigarri aipatzea. Treguharren egitekoa ez zen besterik hilei monumentoak eraikitzea baizik. Treguharren zola sarreraz ekialdera jartzeaz, argi beharrez, eguzkiaren lehen dizdirak jasotzen zituen hobiratuak eta, era berean, bizitza indartzen zuen eguzkiaren inguruko sineskeretan oinarritzen ziren garai haietan. Gainera, Aranzadi, Barandiaran eta Eguren-ek 1922an Plaentzia-Elosu mendietan ikertu zituztenetan nabari denez, olata gisa, abereak janarizatuzten zituztela, horien hezurren azternak erakusten dutenez. Garai hartakoak izango dira Elgetako lehen hobiratze agiriak, zeren Angiozar aldetik, Iruton-torretan bada treguharririk, 1928ra arte Elgetarenak

ziren lurraldeetan. Baina hemen, ez dut esan beharrik, kristauok berenganaturiko ohiturazkoak direla ikergai.

Hispaniako kristauen artean, heriotzarekiko ikuspegia, historia idatziak erakusten digunez behintzat, Elizak Toledoko IV. Kontzilioan Apokalipsiko idazkia onartzetik indartu zen; bereziki, 632. urtetik testu sakratutzat hura hartzeaz, eta Pentekosteetako irakurgai bilakatu zenez, Jainkoak Joan apostoluari egin zion agerpen harrigarri hura heriotzari buruzko pasarteei garrantzia eman zitzaionetik. Geroago, X eta XIII. mendeetako kodizeetan agertzen zaigu irudiz. Batez ere aipagarriak ditugu Liebanako Beatoarenak, geroago Dureroren xilografiak ditugun bezala.

Isastik 1625ean idatzi zuen *Compendio historial de Guipúzcoa* hartan, XVII. kapitulua eskaintzen dio heriotzaren ohiturari: doluaren jazkeratik hasi eta bederatziaurrena igaro arte, kanpaiak nola berezi, erosteriak hileta jotzen, otoitzak ehorzketatzean, gorpua hobiratzea oinak ekialderuntza dituztelarik, olatak ogitik abereak arte, mezak eta abar. Baina, *Ausias March Valenciarraren* poemak metafisika hutsa dira heriotzaren inguruan.

XIV. mendean, Bizkai-Gipuzkoetan, hiribilduak





sortzeaz eta aiton-en- seme tituluz hornitzearen ondorenez, kanpoan lur ematetik elizaren barnera pasatzen dira hobiratzeak eta lehenagoko hilarri biribiletatik argizaiolak erabiltzera. Horren berri ematen nuen Landuz (1983) liburuaren 130-138. orrialdeetan, Nafarroa eta mugazandiko salbuezpenez. Argizaiolarik zaharrenak ez dijoaz gotikoa baino haruntzagō. Kanpokaldean ehorzketak egiten zirenean ere argizaria erabiliko zen, noski, baina bilduma oholak apenas zuten bururik, gero hilarri biribilen antzera agertzen zaigunik. Beraz, badirudi, argizaiolak, bere apaindu-raz hilarri haien antropomorfo itxura gorde nahirik asmatu zirela.

Orohar, teoria hori baliozkotzat joko nuke. Jakina ez zela bat- batean gertatu, zeren 1466an Bizkaitik igaro zen Rosmihal zeritzan txeko bidaizaleak idatzi zuenez, Bizkaian, harrizko hobi baliagarriak aurkitzen dira -zioen-, non jartzen dituzten emakumezkoek lora usaidunak eta argia; elizaren kanpokoaldetik daude hobietan, belaunikaturik beti meza esan edo ez; horregatik gutxitan joaten omen mezatara (ikus Justo Garateren Viajeros Extranjeros en Vasconia, 1942an argitaratutako liburuaren 131. orrialdean. 1989an, berargitaratua da).

Baina itzul gaitzen berriz Elgetara. Esan ohi denez, "Elgetan ogi beroa dirutan, haize hotza doan" (Azkue, Euskalerraren Yakintza, III. liburukia, 143.

orr.). Elgetako elizaren agiririk zaharrenak, orainarteko ziurtasunez, 1339ko data ematen digu; Ladrón de Guevara erregeren merio zela han bildu zen herria, Santa Maria elizaren zimenterioan. Hara hor ere hiribildua sortzearen ondorioz non iristen zaigun elizbarruan hobiratzeak. Baina elizkizunak, ordutik hona, ez dut uste aldakuntza handirik izango zutenik eta etxeoandretarako zetorrenak ere era berean bete beharko zuen hobiaz arduratzea. Elgetan ohi dena (edo ohi zena) berezitat jo nuen Elgueta con Anguiozar y Ubera (1975) deritzan monografiaren 125. orrialdean, baina zuzenketa zehatzagoz dator orain plazaratzen zaigun liburu honetan, egileak gaia tinko eroan bait du ahitu guran, bere egiteko soila hori izan duenez gero. Oinordekoak sortzeko ahalmena duen emakumezkoak, arbasoen hobiaz etxe egoitzaz baino lehen arduratu behar zuen, eta hortik dator ezkontza eguneko zeremonian rito bihurturik hobiaren aurrez aurre otoitz egitea.

Nere aldetik beste oharrik gaineratzekotan, inguruetara igorri beharko nuke nere luma. Adibidez, Eibarren ezagutu ziren entierru maila edo klaseak, lehen, bigarren eta hirugarren mailakoez gainera, bazen beste bat ere, nork lagundurik ez zeukan pobrearentzat: murmurëkoa, abade bakar baten laguntzaz kanposanturatzea egiten zena, ondoko egunean hileta-meza laburrez bukatzeko. Aberatsen “primerakoak” ordea, Eibarren esan ohi zenez, elizkizun

lasai patxadosoak izaten ziren, presarik gabeak, doinuz eta kantaz hornituak, gorpuaren bedeinkapenez apezak: "Bauko, bauko!" otoitzez.

Baina, Eibarren bertan, nik beti ezagutu nituen entierro zibilak ere. Gutxi egiten ziren. Horren xehetasunak AguirreAlcalde-k jaso zituen Guía secreta de Guipúzcoa (1976) liburuaren 95-98 orrialdeetan. Ez dut uste joan zen mendean egingo zirenik. Liberal ezkertiar eta sozialistek sortu zuten ohitura da nonbait eta horregatik uste dut langileriaren klase borrokak hasteaz zabaldu zela zibiletik hobiratzea. Lehen lehenago, hor dugu Gregorio Mujikak Eibarko monografiaren 481. orrialdean biltzen duena, XVII. mendean, Diego Zezeil alkatearen bandoan, non dion: "...que nadie sea osado jugar á los bolos dinero ni vino, durante los Divinos Oficios, bajo la pena de 6 reales de multa y 8 días de cárcel, al dueño de la casa se le impondrá pena duplicada. Nadie debe entrar en la Iglesia con el pelo atado". Hortik ikus gizartea nola aldatu zen gure herrian. Baina, Elgetan, oroitzen naiz ni mutiko nintzanean eliza eta udaletxearen artean zegoen frontoi zahar haretan iragarririk zegoela meza orduetan pelotan jokatzea debekatua zela.

Elgetan entierru-bazkaria dena, inguruko herrietan, Eibar eta Ermua adibidez, onrajana da. Hildakoaren ohorez egiten zen bazkaria. Eta, horren jarraitpenez, edo hobeto esan, urteroko ospakizuntzat,

Arimen ondoko bigarren astelehenez Ermua, Eibar eta Plaentzian ohi den Gaztaiñerre eguna (ikus nere Gogoz-en 76. orrialdean).

Hildakoen oroipenezko elizkizunen limosnatzat ematen zen txakur- aundia eta txakur-txikia deitzen zirenak, gaztelerazko “perra gorda” eta “perra chica”, 1870ean akuinaturiko hamar zentimoko eta bost zentimokoak ziren, alderdi bateko irudian leoia eskudoa eusten zeraman eta leoi horregatik deitzen zitzaion txakur.

Guzti honetan kontuan izan behar dugu Herioa soilik hartzean pertsonaia gisa dela. Herioari ihes egite kezka, berezkoa eta betidanikoa du gizonak. Herioa gainditzeko era bakarra, edo ziurra, bizirik iharraitzen duten ondoko senideen iharraipenean datza, batzutan hartzen duen itxuraz. Arbasoen gogoia etenik gabe gordetzea, horien baitan biziaren iraupena. Hortik dator Elgetan andraberria hartzean honek hobiaren aurrean zinezko otoitza egitea. Badakit hau ez dela hain ulerterreza, baina, ara hor, babesle mitoa sortu beharra. Bizitzak berez duen naturatikako iraupen egarrizko indarrak instintoz bul-tzaraziz gainditzea haruntzagoaren gogoz, naturaz gaindiko senaren eraginez, besterik ezean belaunaldien bidezko jarraipen hortan ustezko euskarria jarritz. Belaunaldi berriak sortaraziko dituen ezkontzara doanarengan etorkizun itxaropena jarritz. Mircea

Eliade-ren ustez, erligio gizonak aldian aldiz arketi-poenganako joera agertzen dute, egoera “garbietara”, gogo hutsera, behin eta berriro hortik lehenera itzultzeko joera, sorkunde zenaren senera berriz joateko.

Euskal Herrian, ohartuko garenez, herioa, esan bezala, pertsonai gisa agertzen da. Erdi Arotik adibide ezaguna dugu esaldi batetan: “Erioak erezan Butroeko alabea Plentzian”. Izan ere lege fisiologikoa eta espirituzkoa daude gizakiaren baitan.

Herioari ihes egiterik ez da bi parteok banan zati-tu gabe. Edo, umorezko ateraldietan ezik. Hargatik zion gure herkide Kaietano Kareagak: “Non hil behar naizen jakin nahi nuke”. Eta, “Zergatik?” gal-detzean, bere ihardespena: “Haraxe ez joateko”. Baina, hori baino pragmatikoagoa zen Elgetan bertan Gaztandolakoaren zirikada hura. Kanposantuko hor-magintzan ziharduten langileei esana: “Mutillak, al-perrik diharduzue. Barruan daudenek ez ditek irten-go eta kanpoan gaudenok sartzerik nahi ez”.

Esanak esan, zirikada horietatik harat, bizitza bera da misterioa, eta betirako galera etsi ezinezko. Hor-ren arabera, bizitza, argi-bide labur bat baino ez. Har-runtzago nahiak, eternitate nahiak eraginik, hilari edo hildakoaren arimari iraupen guraz lagundu nahi zaio, ilunpe haietarako argizariak piztuz, bidaiarako

janariz hornituz. Horien beharra oso larria zen gure arbasoentzat, erleari argizarigintza eskatzeraino, nagusi hilaren gorpuari argi egin behar zitzaion herriko baratzetik Josafateko zelaira arte.

Heriotzaren inguruan biltzen diren sineskera eta ohitura edonon dira interesgarri gizonarentzat. Bizitzairen azken muga denez gero, herri guzietako eta garai guzietako kezka larria denez. Artistarik gorene-  
nek, musikaririk ospetsuenek solenitatezko agurrik hunkigarrienak eskaini dituzte hontaz, doluzko ospakizunak goretsiz. Euskal Herriaren kulturean toki zabala izan du eta ikerkuntzarik ez da falta, baina nedatuago eta sakonduago egin ezinik ez da; liburu hau dugu horren lekuko.

Elgetar batentzat, aztergaia hautatzean, agian, zer hoberik bere herriko hortan ikerketak sakontzea baino? Plazaratzen den lan hontan, irakurle, heriotzaz orotariko bilketen eta ikerketen ikuspegi zabalaz gainera Elgetan inkesta bidez landua eta sakondua dator. Aldiz, esan beharrezkoa zait samur irakurtzeko eran idatzirik datorrela. Aldi berean, larriminik ez du kenduko, ez esperantzarik eskaini. Hotz hotzean, direnak diren bezala, zirenak ziren bezala, argi eta garbi adierazi jakin minez datorrenari. Eta, hori ez da guti. Izatearen iharraipena? Izanaren muga? Ikertzai-  
leak ez du erantzunik, ziurtasun osoz inork inoiz

izan ez duen bezala. Bakoitzak du berekiko gogoeta  
barnetik piztu beharra, eta, agian, argia aurki lezake.

Esaldi latza, baina zehatza, gure atsotitz zahar  
batek diona: "Jaiotzen denak hiltzea zor du"

*Juan San Martin*